


IRAKURKETA

LANTZEKO GILTZARRIAK !



*«Bueltan bueltan
jiran-biran
lurra eta ekia
dabiltza norian.»*

Pello Añorga

Gomendatutako adina:
6 urtetik aurrera

IRAKURRI. BIZI!

Lehen Hezkuntzako
Lehen zikloa

LIBURUA

GAIA:

«Jiran-Biran», 29 poema laburrez osaturiko liburua da. Bertan, elkar erlazionaturik dauden ideia ugari lantzen dira. Erlazio honen adierazle dira idazleak, poemak bilduz, osatu dituen zazpi multzoak. Gai hauen atzean, izenburuaren joko mantentzen da. Izan ere, «Jiran-Biran», liburuko lehen eta azken poemak («Hitza» eta «Oihartzun») arteko joan-etorri gisa uler daiteke; «joan-etorri» joko honetan sartzen dira gai guztiak (eguna-gaua, uda-udazkena...). Idazleak errimak, erritmo, hitz-jokoak modu erakargarrian lantzen ditu, haurrentzat hain interesgarriak diren animaliak, eguzkia, ilargia, kazkabarra, elurra, ortzadarra, koloreak... bezalako gaiak baztertu gabe.

IDAZLEA:

Pello Añorga 1956an Oiartzunen jaio zen. Bederatzi urtez ikastolan irakasle jardun ondoren, gaur egun ipuin kontalari eta idazle ezaguna da. Bere lanen artean aurki daitezke, «Pottoko», «Errege Federiko handiaren arrautza», «Arrain gorria». Horrez gain, Eskoriatzako Haur Liburu Mintegiko arduradunetarikoa da.

IRUDIGILEA:

Jokin Mitxelena Donostian jaio zen 1962an. Pello Añorgaren ia liburu guztiak ilustratu ditu eta idazlearekin batera ibili da herriz herri ipuin kontalarien hitzari irudia ezarritz.

CURRICULUM ERREFERENTZIAK:

KONTZEPTUAK:

• Urtaroak (negua, udaberria, uda, udazkena) eta bere ezaugarriak • Zikloak, amaierarik gabeko joan-etorriak • Erritmoa eta errima poesiaren ezaugarri • Hitza, mintzaia-
ren giltza.

KONTZEPTUEI LOTUTAKO HITZAK:

• Elurra, hotza, ortzadarra, txoria, gorria, euria, haizea, hostoa, eguzkia-ilargia, gaua-
argia, dator-badoa, txantxangorri-gorri, oihartzuna.

PROZEDURAK:

• Urtaroen ezaugarriak ezagutzea • Silabak, hotsak, erritmoak, onomatopeiak... lantzea
• Asmakizunen, aho-korapiloen, bertsoen, poemak mundura bideratzea • Egoera kon-
trajarriak aztertzea • Komunikatzeko modu ezberdinak ezagutzea: mimika, zeinu hiz-
kuntza, aho hizkuntza, marrazkia, soinuak... • Zikloaren esanahia ulertzea • Irudimena
lantzea.

JARRERAK:

• Naturako elementu ezberdinak ezagutzeko eta erlazionatzeko jarrera izatea
• Komunikatzeko ditugun era ezberdinak ezagutzea eta hauenganako errespetuzko
jarrera bultzatzea.

IRAKURKETARAKO LAGUNTZAK

BALOREAK:

- Guztiok ez dugu komunikatzeko bide bera erabiltzen.
- Natura ezagutzeak, bera errespetatzen lagunduko digu.
- Poemak, irakurketa erakargarriago bilakatzeko bide gisa.

ZEHAR LERROAK:

• Ingurunea errespetatzeko beharrezkoa dugu bera gertutik ezagutzea. Poema hauek, urtaro aldaketak, eguraldia, landare eta animalien eboluziora hurbiltzen lagunduko digute. Hain zuzen ere, ingurune gaia biltzen duten poemek, informazio hezigarri ugari eskeiniko digute. Adibidez, tenperatura ezberdinen eraginez euriak jasaten dituen aldaketak: Kazkabarra, Elurra, Izotza. Ortzadarra nola osatzen den, «ekia eta euria ezkonduz». Udazkenean hostoen erorketa ematen dela...

Honek guztiak bizitzaren ziklo ezberdinetara gerturatuko gaitu. Ziklo orok etengabeko hasiera-bukaera du. Jira-bira hau liburuko poemetan islatzen delarik:

Eguna-Gaua, Lurra-Ekia, Saguxarra, Mari Gorringo, Zirkuluan...

Aipatzekoa, poema hauek ere ikasleari baliagarri gertatuko zaizkiola inguruneari buruz gehiago ikas dezan. Adibidez:

«... lurra eta ekia
dabiltza norian.»

Eguzkiaren inguruan biraka dabil lurra.

«... argia bilduta
piztu ilargia.»

Gauarekin batera ilargia ageri da. (Ingurune Hezkuntza)

POEMEN BEREZITASUNAK:

Poema hauen edukia zazpi multzotan banatua badago ere, aurretik esan bezala Jiran-Biran joko honen inguruan dabiltza guztiak.

Egiturari dagokionez, poema bakoitzak bere egitura jarraitzen duela esan daiteke. Bakoitzak, erabiltzen dituen baliabideak ezberdinak izaki, forma jakin bat lortzen du. Honela, orokorrean, ia poema guztietan poema lantzen da; eta zenbaitetan baita errimoa ere. Adibidez, Kazkabarra (31.or.) poeman biak lantzen dira.

Hauexek dira gehien lantzen diren baliabideak:

- *Aliterazioa*: soinu bera edo antzekoa behin eta berriz errepikatzea. Adb: *Elurra* poeman «r»soinua lantzen da.
- *Anafora*: perpaus hasieran hitz bat errepikatzea. Adb: «Ortzadar argia, ortzadar bustia» (38.or.)
- *Errepikaketa*: esamolde osoa errepikatzea. Adb: «*Hitzaren giltza, Hitzaren giltza*»(9.or.)
- *Metafora*: adierazle bat beste batez ordezkatzeko, bien arteko antzekotasun konparaketa aipatu gabe. Adb: «*Hitzaren giltza*»(9.or.)
- *Onomatopeia*: hizkuntzak dituen hotsez hots naturalak imitatzea. Adb: «Danba danbor»(24.or.)
- *Paralelismoa*: egitura sintaktiko bera errepikatzea. Adb: «zeruan dar-dar, lurrean trotean» (31.or.)
- *Pertsonifikazioa*: izaki bizigabeei gizakien ezaugarriak jartzea. Adb: Tantarik tanta, euriak kanta» (37.or.).

PROPOSATUTAKO JARDUERAK

ALDEZ AURRETIK EGITEKO IDEIAK:

- Poemen egiturekin ohitzen hasteko, hurrekin hitzen silabak azter ditzakegu. Horretarako, laukitxoez osaturiko herensuge bat irudikatu eta lehenengo laukitxoetan 2-3 silabako hitz bat jarriko dugu, adibidez: TA-LO. Hurrek hitz horren azken silabarekin hasiko den hitz bat asmatu eta hitz berriaren azken silaba/k hurrengo laukitxoetan idatzi. Horrela jarraituko dugu herensugearen isatsara iritsi arte. (Hizkuntza eta Literatura Arlorako jarduera: komunikazio idatzia)
- Poema hauetan soinu ugari agertzen dira. Soinu ezberdinak landuko ditugu onomatopeien bitartez. Hasieran, animalien hotsak imitatuz has gaitzke; ondoren, zailagoak diren hotsekin jarraituz. (Hizkuntza eta Literatura Arlorako jarduera: aho komunikazioa)
- Hurrei eztabaida gai bat proposatuko diegu: «Zein sortu zen lehenengo, arrautza ala oiloa?» Hausnarketarako unea utzi ondoren, irakasleak arrautza eta oiloaren zikloa, gezien bidez, arbelean irudikatu du; bitartean, zikloaren esanahia azalduz. (Ingurunearen Ezaguera Arlorako jarduera)

AZTERKETA:

- Poemetan ikusiriko errimak lantzen jarraitzeko irakasleak hitz ezberdinak prestatuko ditu. Bitartean haurrak taldeka jarriko dira eta irakasleak talde bakoitzari puzzle bana emango dio. Irakasleak arbelean hitz bat idatzi ondoren talde bakoitzak errima bereko hitzak asmatu beharko dituzte denbora mugatuan. Hitz gehien asmatzen dituen taldeak, bere puzzleko pieza bat eskuratu ahal izango du. Puzzlea amaitzen duen taldeak jarduerari amaiera emango dio. (Arte Hezkuntzaren Arlorako jarduera)
- Haurrak beraien jaioteguna zein urtarotan kokatzen den zehazteko, irakasleak urtaroen mugak idatziko ditu arbelean. Ondoren, irakasleak aukeraturiko paisaiaren marrazkia banatuko zaie hurrei. Haur bakoitzak marrazkia osatuko du, dagokion urtaroen ezaugarriak irudikatuz. (Arte Hezkuntzaren Arlorako jarduera)
- Haurrak taldeka jarriko ditugu, talde bakoitzari liburuko poema jakin bat lantzeko eskatuz. Prestatzeko denbora utzi ondoren, gainontzeko gelakideen aurrean poemak adierazi nahi duena antzeztu beharko dute; hitza ez den beste soinu, keinu... erabiliz. (Hizkuntza eta Literatura Arlorako jarduera eta Arte Hezkuntzaren Arlorako jarduera)
- Liburuko poemetan behin eta berriz agertzen den kontrajarritasuna lantzeko asmoz; irakasleak bi multzo ezberdin egingo ditu (kontrajartzen diren hitzak multzo ezberdinetan bereiztu beharko ditu). Hurrek gezien bidez lotu beharko dituzte. (Hizkuntza eta Literatura Arlorako jarduera: komunikazio idatzia)

AZKEN SINTEZIA:

- Haurren irudimena faboratzeko, poemen irakurketaz balia gaitzke. Irakasleak poema bat irakurriko du, poliki-poliki. Hurrek orri batean poema entzutean bururutzen zaiena irudikatuko dute.
- Pello Añorgaren «Udazkena» poema erabil dezakegu:
 - Firin, firain
 - hostoaz apain
 - hostoaz apain
 - firin firean
 - hostoaz airean
 - lurraren bidean
 - firin firain
 - hostoaz sustrai (39. orr.)

- Errimadun abesti, bertso, aho-korapilo... ugari ditugu Euskal Literaturan. Hauetaz balia gaitzke hurrek gai hau gehiago sakontzeko. Erakargarria zaien abesti, bertsoa... aukeratu eta elkarrekin abestu.

ORAIN ZEURE TXANDA DA – 1 (irakurri baino lehen...)

Jakin badakizu hitzak silabez osatzen direla. Ondorengo testua silabaka zatituz gordetzen duen mezua ezagutuko duzu.

GEZURTIALEHENAGOHARRAPATZENDAHANKAMOTZABAINO


ORAIN ZEURE TXANDA DA – 2 (irakurri ondoren...)

Asmakizun hauetan izkutatzen den hitza marrazteko gai izango al zara?

*Kalera irten orduko
banoa poltsikotik
goxoki, ipuin eta polo
dena eros dezaket nik.*



*Kantatzen badaki
baina ez da txoria
zuloan bizi da
eta ez da sagua
saltari abila da
baina ez da matxinsaltoa.
Ezetz asmatu zein den
gaua baino lehen?*



*Zure izebaren ahizpa da
eta zure izeba ez da
nor izango ote da?*



ORAIN ZEURE TXANDA DA – 3 (irakurri ondoren...)

Ondorengo poemari hitzak ezkutatu zaizkio. Lagunduko al diozu dituen hutsuneak betetzen? Gogoan izan poemek errimak izaten dituztela.

Ene ur miragarria

itsasoan _____

ibaietan saltaria.

Beroarekin lurrina zara

hoztean, berriz, _____

Hortik dator iturria

edari _____

kentzen duzu _____ .

egarria

ugaria

maitagarria

euria

NIRE LIBURUAREN OROITZAPENAK

Izenburua: _____

Idazlea: _____

Irudigilea: _____

Bilduma: _____

Argitaletxea: _____

Gehien eta gutxien gustatu zaidana: _____



Fitxa hau oso-osorik kopia daiteke gelan lan egin ahal izateko. Aizkorri argitaletxeak horretarako baimena ematen du.

INFORMAZIO GEHIAGO NAHI IZANEZ GERO...

Ziklo honetarako gomendatutako beste izenburu batzuk:

- ESPALOIAK BILTZEN; Joxemari Iturralde
(Mendi Sorgindua bilduma - Aizkorri Argitaletxea)
- PAPEREZKO GIZONTXOA; Fernando Alonso
(Mendi Sorgindua bilduma - Aizkorri Argitaletxea)



Telefonoa: 94-423-75-99